

JOSANTON ARTZE POETA USURBILDARRA, PENTSAMENDU ETA HITZ-JOKOEN ZIZELKARIA

Hutsuneak deigarriak izaten dira batzuetan; erakargarriak ere bai, arte-lanetan, mezu indartsu baterako, estetikaren bidetzat bilatzen direnean. Jurgi Oteizarekin aurkituko ginateke bide horretan. Baina hutsuneak, oro har, mingarriak eta bete beharrekoak izan ohi dira.

Orain dela hilabete, urtarrilaren 12an, hil zen Josanton Artze poeta usurbildarra. Euskal letretan haren hutsunea sumatzen dugu orain, hutsune mingarria. Bera ez dago hemen, baina bai haren obra: olerki-liburuak, txalaparta-hotsak, kantak, emanaldietako bideoak... Horiek guztiek betetzen dute, nolabait, hark gurean utzi duen hutsunea.

Bigarren pizkundea 1960ko hamarkadan

1960ko hamarkadan, euskal arte eta literaturan, bigarren pizkundea izan zela esan dezakegu. Lehenengoa gerra aurrekoa izan zen, gerra zibilak eta ondorengo diktadurak zapuztu eta isilarazi zuen mugimendu indartsua. Gero, negargarria zen egoera: isilpean, mehatxupear zen diktaduraren oposizioko guztia; gure identitatearen seinaleak ezabatuak edo ezkutuan gordeak; katakonbetako garaia zen tunel ilun eta luzea igaro



arte. Dena zegoen geldi, euskal kulturaren eta literaturaren baratzera hasiak hartua, dena zen eza eta dolua gurean.

Halako batean, 1960ko hamarkadan, bizinahiak eraginda eta ikuskizun triste hari aurre egin beharrez, hainbat mugimendu eta talde sortu eta eratu ziren eta, beldurrez aukera hobeak noiz etorriko zain egon beharrez, plazaratzen hasi ziren ausarki gaztetasunaren indarrez.

Hor dugu Euskaltzaindia bera, berrogei bat urte lehenago sortua, urrats ausart bat ematen eta euskara zaharra garai berriarako egokitzen, prestatzen, janzten. Orduan sortu zen euskara batua, lekuan lekuko hizkerez eta euskalki literarioez gain, euskaldun guztien hizkuntza ofiziala izateko jaioa; “iturri zaharretik ur berria”.

Hor ditugu ikastolak. Haietara irazteko lehenengo ahalegi-
netan G. Arestiren poema ospetsu hartan –*Nire Aitaren Etxea*
izenekoan– adierazten den antzeko airea sumatzen zen: gal-
tzeko arriskuan zen ondarea gorde nahia; geure espirituari
itsatsia dugun kultura indarberritu eta berpiztu nahia; herria-
ren aurrean eginiko promes antzekoa: arbasoengandik dator-
kigun izaera sendo ezarri arte ez dugula sekula etsiko... He-
rritar askoren ametsak, etorkizunerako asmoak, haien ingu-
ruan bildu ziren. Kultura-abentura berri legez, erronka bizi
legez, agertu zitzaizen ikastola hainbat gurasori, sustraian
tinko eusteko eta bizi berria emateko aurretikoengandik
jasoriko oinordetza aberatsari.

Euskal artisten aitzindaritzaren dugu, beste hainbat eragilere-
kin batera, pizkunde berri honen oinarrian; izenik aipatuena
eta guztien gogotan daudenak hauek dira: Jurgi Oteiza, Eduar-
do Txillida, Remigio Mendiburu, Nestor Basterretxea, Jose Luis
Zumeta...

Negu ilun eta luzea igarota, udaberri itxaropentsu horrek
dakar, Gerediaga Elkartean eraginez, Durangoko Liburu eta
Disko Azoka ere, hasieran txiki eta apal, gerora liburu eta dis-

koen zabalkundean ospetsu bihurtuko zena; euskaltzale, liburuzale eta musikazaleen urteroko bilgune nagusia.

Eta Durangoko Azoka horren estreinaldian bertan, hango bilguneaz eta zabalkundeaz baliatuz, EZ DOK AMAIRU taldearen lehenengo plazaratzea. Josanton Artze usurbildarra han zen, talde honen sortzaileen artean. Antzinakoen hotsa zekarren garai berrietara bere anaia Jesus lagun zuela; berriro ere, olerkian berak egoki adieraziko zuenez, “iturri zaharretik ur berria”. Azalpen labur batzuk entzun genituen Xabier Leteren ahotik, txalaparta antzina zertarako erabiltzen zuten adieraziz: hainbat ospakizunetara dei egiteko, gauza batzuen hots eta erritmoak imitatzeke: sagardoa egiteko sagarra jotzearena, zaldiaren trosta... Gauza handirik ez genuela ulertu esango nuke, baina Artze anaiek zurarekin egiten zuten elkarriketa misteriotsua eta erakargarria begitandu zitzaigun; zuraren bihotzetik haren espiritua hots eta erritmotan ateratzen benetako maisuak zirelako irudipena izan genuen. Antzina zaharrera begira jarri gintuen eta era berean gerora begira. Bai, goian adierazi dugunez, gure herrian pil-pil zen bizinahia. Une hartan herriari kontzientziara deiaraz egiteko hotsa zen txalaparta.

EZ DOK AMAIRU taldeak (mugimenduak?) indarra, ametsa, elkarrekin hainbat gauza egiteko, gauzatzeko, mamitzeko asmoa zekarren, hitz batez, arte-kreaziorako asmoa. Gerra aurrean, beste batzuen laguntzaz, Jose Ariztimuño “Aitzol” aitzindari izan zuen pizkundean, olerkia herriaren askapenerako eta abertzale-sua pizteko tresna egokitzat jo zenez, 1960ko hamarkadan kanta berria izango da piztaile indartsuenetako bat, une hartan EZ DOK AMAIRU taldearen inguruan mamitu zena. Baina kanta berria esatean ez dugu esan nahi musika soilik. Musikarekin batera ematen zen mezua, hau da, kanta haien hitzak esanguratsuak ziren oso, ongi zaindu eta landu beharrekoak.



Barinagako Santa Marina basiliza

Talde hau eskola ere izan zen, musikari eta kantariak ez eze, poeta-ezpala zutenak trebatzeko eskola. Hor trebatu ziren Xabier Lete eta Josanton Artze. Kanta berriak mezu berriak behar zituen, indartsuak, poesiaren bihotzean erneak eta estetikaren moldean ehoak. Gure bi lagun horien inspirazio poetikoa ingurumari horren atezuan sortu zela esan dezakegu. Hartara bideratu eta behartu zituen haize eta eragingarri hura izan ez balute, izango ote ziren gero izan zirenak? Beharbada bai, barne bete eta aberatsak adierazi eta loratu beharra izaten baitu, ur-korrente indartsuak nondik edo handik bidea egiten baitu. Baina ez dago esan beharrik, ingurumari hura lagungarri eta bultzatzaile gertatu zitzaizela.

Jurgi Oteiza eta Gabriel Arestiren ispiluan begiratu hasi ziren taldeko kideak, eta apurka-apurka bidea eginez eta haziz zihoan taldea. Behin-behinekoa zirudien eta hala egin zuten aurrera, ikasiz, eskarmentua hartuz, herriak une hartan zer be-



Santa Marina basilizako zurezko egiturari begira

har zuen usainduz, elkar suspertuz, eskolatuz, esperimentatuz. Urte batzuk elkarren babes eta arrimuan eginez, azkenik bakoitzak bere bidea hartu zuen.

Baina bidegurutzean, elkar agurtu aurretik, askotariko ikuskizun bat eskaini nahi izan zuten: *Baga Biga Higa*. Talde osoaren lana izan arren, Josanton Artze izan zen Mikel Laboarekin batera ikuskizun horren arima, eragile eta sustatzaile nagusia. Askotariko ikuskizuna zela esan dugu: bi zatitan eman zen eta bien artean atsedenaldea. Hasieran eta amaieran kide guztiek Baztango dantza dantzatu zuten agertokian. Beste batzuen artean hauek zetozen hurrenez hurren: “Xoxoak galtzen

du mokoia” (kanta herrikoia), txalaparta-hotsa, “O Pello, Pello” (kanta herrikoia), tobera-soinua, taldeko poeten errezitaldiak edo musikaturikoen kantak: “Txori txikia” (J. A. Artzeren olerkia). Bigarren zatian, musu-gitarraren soinua, “Txoria txori” (J. A. Artzeren olerkia), “Gizona, lana eta makina” (J. A. Artzeren olerkia), eta “Baga biga higa” (kanta herrikoia).

Josanton Artzeri begira

Baina jar dezagun kameraren begia Josanton Artzerengan. Haren biografia, bibliografia orokorra eta *Karmelen* argitaratua, ale honetako beste idazlan batean agertuko denez gero, ez diogu hemen alde horri zehazki erreparatuko. Bestalde, haren biografia pertsonalaz gauza gutxi aurkitu ahal izan dugu; dagoen ia guztia beraren obra-rekin zerikusia duena da edota hortik, bide batez, ateratzen dena. Ez familiaren konturik, ez haurtzaroko oroitzapenik... Gaztetan European nazio batzuetan zehar ibili zela esaten da, baina zertara joana zen ez bestelako argibide zehatzik eman gabe. Behar bada, hala uste izango zuen berak, bizitza pertsonala ez zaiola inori axola. Hor daude obrak, olerkiak, kantak, hitzezko eskulturak, bakardadeko emaitzak, gero jendau-



rean agertuak... Baina norbaitek ospea lortzen duenean, haren xehetasunik txikienek ere jakin-mina pizten dute. Eta halako xehetasun txiki batzuei erreparatu diet *Ortzia lorez, lurra izarrez* liburuaren azaleko barne-tolesturan. Hona hitzez hitz, baina ez, originalean datorren bezala, lerro txikietan:

Artze Agirre, Joxe Antonio, Usurbilen jaio eta bertan bizida, Andatza aurrez aurre duela egiten du lan, eta Andatzak duen ardatza du ere berak ardatz burutik behera bibotzean barrena oinetaraino sartuta.

Aita Beterrikoa zuen, eta Beterrin azken muturrekoa, Usurbilgoa; ama, Goierrikoa, eta Goierrin azken herrikoa, Ataungoa, eta Ataunen azken auzokoa, Aiakoa. Amaren aita, Joxe, artzaina, Errondo basetxekoa, eta aitaren ama, Anttoni, nekazaria, Zizurkilgoa, Elizalde etxekoa.

Eskandinavian aurkitu zuen zein zen bere herria; Ingala-terran zein zen bere hizkuntza, eta Euskal Herrian, etxea; etxean, bere gela, eta gelan, galdutako ildo.

Eskua goldeari ezarri zionetik ez du atzera begiratzen, ebakitakoan baino areago ebakitzeko duen ildo zuzen eta sakon egitean du ipinirik arreta guztia.

Poemak, bakardadean, oroimenean gorderik ditugun sentipen, irudipen eta esperientziak adimenaren eskuetan hartuz, era finez tolesturik eta konbinaturik, loratzen den emaitza dira, baina ez dira sortzen bakardadean ihartzeko, irakurleen eta literatura zaleen gozamenerako baizik. Artzeren kasuan, gainera, poema asko musikatuak eta herriaren kanta bihurtuak izan dira batzuetan, eta beste batzuetan, autoreak berak errezitaldietan deklamatuak eta plazaratuak, agertokian ikuskizun bihurtuak. Horretan ere, poemak bakardadean ontzen ez eze, artista eta maisu izan genuen. Bere ahots gozo eta bereziaz ikuskizun edo entzunaldiei aire barnekoia ematen zekien. Horrelako hainbat emanaldi aipatzen dira. Gehienetan kantari edo musikariren bat lagun zuela, bere poemak nahiz herrikoiak eskaini zituenekoa.



Xemeingo San Miguel basiliza ondoan

Disko eta bideoetan geratu direnak ditugu hauek: Bere anaia Jesusekin eta Mikel Laboarekin *Ikimilikiliklik* saioa (1974) eta Luis de Pablarekin *Zurezko Olerkia* kontzertua. Txalaparta-diskoak eta bere poemak ere grabatu ditu.

Josanton Artzeren poemagintza eta euskarriak

Lehen begiradan ohartzen gara haren poemagintzaren beritasunaz; ez dela belaunaldi zaharragoetan ohikoa zena; “olerkariak”¹ zeritzen haiekin zerikusirik ez duela, ez formaz eta ez baliabidez. Haiek metrika eta errimadun ahapaldietan

¹ Gaur egun “olerkaria” poeta hitzaren sinonimo legez erabiltzen bada ere, euskal literaturan, garai eta joera bateko poetak hartzen zituen bereziki. “1900. urtetik 1950.era arteko poetei ematen zaie, batez ere, izen hau euskal literaturan” (*Europa Hiztegia*).

idatzi ohi zuten. Euskara garbizale airekoa zerabilten, iturri sabindarretik edan zutena. Gaiak edo euskarriak, askotan, unibertsalak dira: izadia, urtaroak, denboraren joana, bizitza eta heriotza; baina beste batzuetan, nahiko bereziak: euskara, aberria, guda. Azken batean, beraiek bizi izan zutena. Ezkutuan nahiz agerian, kristau-pentsaera eta sentipena ziren guztia biltzen eta barnean hartzen zutenak. “Olerkarietan” Orixe, Lizardi, Lauaxeta aipatu ohi dira lehen mailan; Sabin Muniategi, Balendin Aurre-Apraiz, Jautarkol... haien orpoz orpo. Besteak baino hurbilagokoa zaidalako, Balendin Aurre-Apraiz olerkariak *Karmelen* idatziriko zatitxo bat eka-riko dut hona:

Bizitzari darion olerkia dala esango neuke Aurraitzena. Eguneroko bizitzaren harian dibardu bere olerkiak ontzen: Aberriaganako sentimendu minberatik; gerrateko ekaitz-giro larritik; espetxeko egonezin eta askatasun gosetik; atzerriko herriminetik; izadiaren altzo maitetik; Euskal Herriko giro aldakor eta erretik; euskara lorrintzeko edo galtzeko arriskuak sorturiko itsaso nabasi eta saminetik... Olerkariak guztia dau olerkigai; jazoerarik hutsalenak, ezerezenak dardara eragiten deutse barruan. Baina, bidezko danez, jazoera bakoitzari jagokon hotsez, doinuz onduko ditu gero olerkiak. Harmoniaren ñabardura horreetan, aire gozoa, narea, samina, bizia, larridurazkoa, garratza agertuko da... Baina urruneko edo gain-gaineko begiradaz olerkiei adi jarrri ezkerro, tristura edo, berak sarri darabilen berbaz esateko, kadentasun-sentimenduak hartzen gaitu. Gerra aurreko olerkarien ezaugarria dala esan ete leiteke? Asko ikusita, gure herriaren zoriagaitik negar dagien arima samur eta leialen tamal ezin gordezkoa.

Uste dut ongi adierazten dela lerro horietan “olerkariak” zuten ingurumaria olerkiak sortzerakoan. Josanton Artzek, hegoak ebaki gabeko txoriak bezala, askatasunez, hegan egin nahi duela dirudi bere hitz-jokoen zeruan. Horregatik, tradi-



Karmel aldizkariko idazleak (2008an)

ziozko ahapaldi, metrika eta hoskidetasuna alde batera utziz, lotura horiek gabe, barnertzen da hitzezko baratze ederrean. Bilatze-lana etengabekoa da; aurrera begira doa.

Atzean utzi dituen baliabide haien ordez bere-bereak dakartza: ohiko ahapaldi eta neurrien ordez, hitzezko eskulturrak, era askotara tolestu eta ezarriak, arte handiz eta espiritu finez konbinatuak, begien gustagarri eta sentimenduen ernagarri. Errima edo hoskidetasunaren ordez, berariaz bilaturiko aliterazio edo hots-pilatze indartsuak. Hoskidetasun bereziak eta hitzen errepikatze adierazgarriak. Adibidez, lerro txiki eta xume hauei erreparatu diet:

*apal apal
begaka
ximeleta*

*epel epel
lorea
zai.*

*Zure begian ximeleta
apal apal
sumatzeaz batera
xabal xabal
zaizkit begiok loratu.*

Hona hoskidetasun eta hotsen errepikatze berezi hori agerian duen beste adibide bat:

*Inork ez hil nabi,
denek nabi zabartu,
zenbatek, zuhurtu?*

*eta asko dira zabartzen,
baina oso gutxi zuhurtzen.*

*Asko dira zabartzean
zabartzen eta txartzen,
txartzen eta txoratzen,
ez badira zuhurtzen.*

*Ez direlako zuhurtzen
baitirade zabartzen,
eta zabartuz, noski, hiltzen.*

Haren poemak gardenak dira, ulerterrazak. Ez da metafora ausart eta ilunen barrunbeetan ibiltzen zalea. Horregatik, irakurleak ez du erdi esanean utzi diren eta azpi sakonagoa iradokitzen duten irudietan barna abiatu beharrik. Dena dela, hau ez da beti hala gertatzen, baina joera hori du. Beste hainbat poetak bezala, poemei aire filosofikoa ematea du maite. Eta hori aforismo antzeko esaldiekin lortzen du; aforismo antzeko esaldiekin eta kontraste eta hitz-jokoekin: *Ortzia lorez, lurra izarrez. Mundua gizonarentzat egina da, baina ez gizona munduarentzat.* Hona haren bi poema-libururen izenburuak, aurreko lerroetan esandakoa berresten dutenak. Haur-kanta herrikoi batzuen airea nabari zaio hainbat poematan, katean doazenak: “Behin joan nintzen merkatura”, “Xoxoak galdu burua” eta halakoen motakoak. Hona adibide bat:

*Ixiltasuna dantzugarik ukitzen dugu baizea,
baizea ukituz ikusten sua ere,
sua ikusiz usaintzen ura,
ura usainduz dastatzen lurra...
hau da, Ixiltasunaren azken oihartzuna.*

Pentsamenduak eta sentipenak adierazteko maite duela aforismo edo sententzia antzeko baliabideak erabiltzea esaten genuen lehenago. Hona halako adibide bat ere:

*Ametsetan ari denak
ez du inoiz uste
ametsa amets duenik
argiak itzaltzen dion arte.*

Ez da erraza haren poemagintzako euskarriak zein diren zehaztea eta gaiak sailkatzea. Izan ere, batzuk pentsamendu eta sententzia labur-laburrak dira eta askotan ez da jakiten non amaitzen den poema bat eta non hasten den hurrengoa.

Izenbururik ere ez dute gehienetan. Ahalegindu naiz horretan, betiere eskura ditudan haren poema-liburuak erabiliz, hau da, Artzeren bizitzako bigarren garaiari dagozkionak. Lehen garaikoak apurtzaileak, biziak eta txinparta gorikoak zirela esan dezakegu; bigarren garaikoak, bareagoak eta pausatuagoak, maitasun gozoagoa darienak. Orain, agerian nahiz ezkutuan, Jainkoa guztiz presente dago. Hona haren beste hainbat euskarri edo sarri agertzen diren gaiak: izadia, kreazioa, mundua, haizea, itsasoa, olatuak, ortzia eta lurra, eguzkia eta ilargia, lorea, txoria, tximeleta, iturria eta ura, gizakia, euskara, jaiotza eta heriotza, ama, aita, anaiaren heriotza, maitasuna, esperantza, ametsak, denboraren joana... Hemen adibide batzuk:

[Kreazioa]

*Barru barrengo begiaz so egitean,
izadian den eta diren zera guztiei,
ororen ixilik, barnean duten pindar itzalezina
diegu sumatzen...*

*Izaki guztien bidez mintzo zaigu Izpiritua,
diren izaki guztiak
mintzo dira Hartaz.*

*Izpirituaren mintzoa dira izadiko izaki guztiak...
baina hauek jakin gabean;
gizakia bakarrik, gizaki delako,
eta izadiak gaindiko batez ere,
da jakinaren gainean mintzo.*

[Jainkoa beti gurekin]

*Ez gaitu inoiz bakarrik uzten,
ez badugu guk bera abazten;
eta abazten badugu ere guk bera,
ez berak gu.*

*Maite dugun arte
ez dugu jakiten
zenbat maite gaituen
betidanik maite gaituenak!*

[Itxaropena eta iraupena]

*Eutsi betikoari,
betikoak euts diezagun
orain hemen eta gero han.*

*Eta bizi dezagun oraina,
orain bizitzeko betikoa;
orain beretik bizi ahal dezagun
beti biziko dena,
inoiz hilko ez dena.*

aiduru

*Nola zintzakedan bada
nik zu maita
ez zintudan ezagutzen eta?
eta nola zu ezagut
maite ez bazintudan jada?*

*Zure bila ibili dira urduri
ene begiok,*

*galdu den bildotsarenak bailiren,
bila, bere amaren,
urduri eta luzaz
urrutiko bazterretan,
kanpoan zure bila:*

*Itxurak itsututa,
kolorez lausoturik,
barru-barruko argiaren ikusetik,
dira ene begiok ibili;
putzu zulotan zekusaten eguzkia
ustez eta zelakoan egiazkoa
dira luzaz ibili ene begiok
azalean zure bila:*

*Zekusatelakoan ez ikusiz,
zekitelakoan ez ikasiz,
sortzez itsu denari gertatzen zaionez
argirik denik ere ez iritzirik,
ilunpeaz beste argirik ez dela aldarrikatzen
dira luzaz ene begiok ibili,
ametsetan eta esnairik,
etzanik eta zutik, zure atzetik,
beti kanpoan, beti azalean...*

(...)

*Begietan gabe
bihotzean zintudan
aspaldi handian
sakonki erroturik.*

Erantzunez gainezka ibili nauzu zeure etxetik urrun.

*Galdera bakar batek dit hustu burua,
bete, bihotza;
galdera bakar horrek nauka
orain zure atarian deika,
o, maite!
egunsentiaren atea noiz,
zabal-zabal,
zabalduko didazun zai.*

[Euskara]

*Iturri zaharretik
edaten dugu,
ur berria edaten,
bitz bizia aditzen,
beti berri den hitza,
betiko bizkuntza zaharretik.*

(...)

*Isurtzen duen ura nondik
datorkion, zer daki iturriak!
bala heldu zaigu,
alde ezezagunetik,
alde ilunetik
zaigu heldu,
aboz abo ahora,
eskuz esku eskura, euskara:
bitza eta bizia.*

joxan Artze

heriotzaren ataria
dugu bizitza



elkar

**m u n d u a g i
z o n a r e n t z
a t e g i n a d a
, b a i n a e z g
i z o n a m u n
d u a r e n t z a t**

HARTZUT"

JOSANTON ARTZE

Zubi Zurubi

Zer dioen kritikak

Pamielak *Isturitzetik Tolosan barru* liburua berrargitaratzean Iratxe Retolazak *Berria* egunkarian idatzitako kritika dut esku artean. Zati batzuk, behintzat, aldatuko ditut hona:

“Ahozko kulturaren bitartez ezagutu nituen, lehenengoz, JosAnton Artzeren hainbat eta hainbat poema. Beranduxeago, poema horiek paperean irakurtzeko eta gozatzeko aukera izan nuen *Isturitzetik Tolosan barru* liburua eskuratu ahal izan nuenean. Harritu egin ninduen liburu horrek, euskal literaturako argitalpenetan ezohikoak diren forma koloretsu eta biziak betetzen zituelako, eta baita mamiz beteriko hitzak gordezten zituelako ere.

Isturitzetik Tolosan barru liburu honetan aniztasuna da nagusi, formen jokoetan, erregistroen erabileran, gaien tratamenduan, koloreen erabileran, eta abarretan. Horrekin guztiarekin, paperaz gaindiko euskarrien aldarrikapena egiten da, hitzaren garrantzia hanpatzen da, baina hitzaren dimentsio guzti-guztiei garrantzia emanez.

Batetik, hitzaren espazio fisikoaren inguruko gogoetak egi-ten dira. Honela, hitzekin irudiak sortzen dira, edota hitzak eta irudiak elkarren ondoan agertzen dira, eta, gainera, hizkien tipografia ere erabiltzen du hitzaren espazio fisiko horri kolorea, tamaina, letrakera eta mugimendua gehituz. Bigarrenik, hitzaren espazio akustikoak ere zentzuak sortzeko bide direla adierazten da. Hitzaren hoskidetasunekin jolas egiten du zentzu berriak sortuz, eta, gainera, hitzaren espazio akustiko hori are argiago agertzeko, liburuarekin batera poema zenbaitek irakurketak eskaintzen dira, hotsen bitartez ere egitiko interpretazioak izanik.

Hirugarrenik, liburu honetan hitzak ere espazio geografiko batean kokatzen dira. Gogoan izan aurkibidea bera Euskal Herriko mapa batean irudikatu dela, eta orrialde bakoitza he-



Karmel aldizkariko idazleak (2009an)

ri baten izenez mugatu dela, Isturitzetik Tolosan barrena bi-daiatxo hori egiteko kartografia osatuz.

Ondorioz, liburu honetan muga arteko espazio hori aldarrikatzen da, ahozko hitzaren eta hitz idatziaren arteko mugako espazio hori, irudiaren eta hizkuntzaren arteko mugako espazio hori, musikaren eta hitzaren arteko mugako espazio hori. Hitzaren taupadak, azken batean, bidegurutze horietan mamitzen dira, bidegurutze horietan bizi dira”.

Ortzia lorez, lurra izarrez liburuari buruz da hurrengo kritika, liburua argitaratu berri, Jon Kortazarrek idatzia (*Eguna*, 1987-10-01). Hona hemen hango pasarte batzuk:

“Pozarren eta irakurtzeko gogo-minez hartu dut esku artean Artzek *Ortzia lorez, lurra izarrez* titulupean plazaratu

duen liburu berria. Liburuak –egia esan–, idazlearen isiltasunarekin bukatzeaz gain, idaztankera bereziaren fruitu loratua dastatzeko aukera eskaini digu.

Lan hau ez da aipatu gabe utzi daitezkeen horietakoa; beste kontua da, ordea, atsegin izan ala ez. Bizirik dirute oraindik Juan Mari Lekuonak 1970. urtean idatzirik hitzok: Artze ‘Errotutako gizona, pentsamendu gurpil agirikoa’ eta ‘Teluriaren altzoan, herriaren zainetan’ zioten hitz haiek. Eta horrelakoxea da oraingo hau.

Baina aurrerakoekin alde handia nabari zaion lana izanik, oinarri gabekoak dira, nik uste, irakurle batzuei entzun dizkiedan iritziak.

Artzek aldatu egin du ezizena. Lehen Hartzabal zena, lautasuna bertikaltasun bihurtuz, Harzut azaldu zaigu. Eta Artzeren olerkigintzan nagusi ziren ildo ezagun bietatik –aforismo joera eta hots-hitzetan oinarriturikoa– errefrau kutsuzkoa nagusitu zaigu.



Karmel aldizkariko idazleen bazkaria Markina-Xemeingo Iturretan

Artzeren poesia, dialektika gotor batetan oinarritu da. Honela, bere poesia, errealitatearen mugen aurrean, ironia herrikoiak eta etorkizunerako nahi lukeen zorian mugagabeen artean murgiltzen zaigu, baina pentsakizun sakon bezain ganorazkoetan jaikia. ‘Dakienak badaki nora dijoan jakiteko / behar duela / nondik datorren jakin’ bertso saila, liburuaren laburpen bikain bihurtuko du Artzek. Bere olerkiak, ironiak idealismoari jarritako errealismo jasangaitzean aurkitzen du sehaska, eta izadiarekiko panteismo berritzailean etorkizunerako bide. Liburuaren erdialdean –oso egitura borobila duen liburu izaki–, eskuz idatzitako poemak ere zer pentsa asko eta hainbat giltza ematen digu bere mamia hausnartzeko.

Beste aldaketarik aipatzearen, puntu bitara mugatuko dugu solasaldia. Kanpoko zibilizazio zaharren oihartzuna gardena da oraingoan eta euskal errefracua zein beste herrialde baten esatera gizonari buruzko gai bakarra ziurtatzeko baliabide edertzat balitu bezala agertzen dira. Biek adieraziko diote Artzeri nolakoa den gizon sakon eta errugabearen irudia. Bestetik, gaurko zibilizazioari egindako kritika zeharo bortitza da. Laizismoak, kontsumo-gizarteak, eta askatasun sexualak, Artzeren luma-gezi ironikoaren ziztada hartzen dute zenbait patsartetan.

Liburu borobila, esanahiez aberatsa; Ying-yang barrokoa, gizonaren aurpegia islatzeko saiakera indartsua”.

Beste kritika labur bat agertu zen *El Correo* egunkarian Javier Rojok idatzita *Mundua gizonarentzat egina da, baina ez gizona munduarentzat* liburuaz. 1999-03-10ko data du; liburu bera 1998koa da. Hau da handik ekarri dudana:

“Artze moda guztietatik urrun bere bidea urratzen ari da euskal poesian. Batzuek pentsa lezakete bide hori ez dela egokia, gaurko munduak bestelakorik behar duela. Baina ezin zaio ukatu bere printzipioekiko leiala dela. Bere poesia gizakia eta unibertsoaren arteko dialektikan oinarritzen da eta bi-

laketa bat erakusten digu. Poetaren ardura nagusia izatea baita, zer den benetan izatea. Erantzunak aurkitu nahirik, paradoxa erabiltzen du maiz. Hargatik, izatea eta iruditzea kontrajartzen dira, edota izatea eta edukitzea. Izatearen oinarrian maitasuna dago. Artzeren poesiak askotan modernitateari kontra egiten diola dirudi, baina mundu modernoari berari baino, mundu moderno honek dakartzan zenbait ondoriori gehiago, nire ustez: pentsamendu bakarraren diktaduraren aurka agertzen zaigu poetaren ahotsa. Moda guztien gaintetik eta pentsamendu bakarrak haraindi, eskergarria zait oso Artzek erakusten duen humanismo esentziala”.

Badira, literatura-kritikaren izenean, ideologia eta fobia bartzuen eraginpean, Artzeren lehen garaiko ekarpena goi-goian jarri ondoren, bigarren garaikoa aurrekoaren ukapen gisa hartu dutenak, garai honetako Artze atzerakoi eta karkatzat jotzeraino.

Josanton Artzek bere buruaz eta bere olerkiak dioena

Juan Luis Zabala idazle eta literatura-adituak, *Berria* egunkarian 2014ko urtarrilaren 18an, egin zion elkarrizketatik jasoa da Artzek bere bizitzaz eta obraz dioena.

Azken urteetan poema berriak idazteak baino buruhauste gehiago eman ez ote dion, galdetzen dio Juan Luis Zabalak, lehengoak argitaratzeko ongi eratzeak, sailkatzeak. Eta honela erantzuten du:

- *Oraingo liburu hauetan, olerkiak idazteaz kanpo, poemak nola elkartu erabakitzea izan da lan berezia. Behin konturatu nintzen olerki bati zer olerki jartzen diozun aurrean, zer ondoren, olerkiaren zentzua bera ere aldatu egiten dela, edo elkartze horrek olerki horren beste dimentsio bat agertzen duela. Orduan pentsatu nuen elkartze hori zein ederra eta zein aberasgarria izan zitekeen olerkientzat.*



Bazkalondoan musikaldia entzuten

Ortzia lorez, lurra izarrez duzu orain hurrengo poema liburua, 1987koa. Haren eta oraingo berrien artean 26 urte pasa arren, liburu berrietan ez dira gutxi liburu haren oihartzunak.

- Liburu haren jarraipena dira oraingo olerkiak. Han hasi nintzen tankera bonetako poemak idazten, eta gero askoz ere zabalago eta sakonagoa biburtu da orduan hasitako bidea. Eskarmentuaren arabera, lehen erabili gabeko gaiak erabili ditut, baina orduan hasitakoaren garapena dira oraingo olerkiak.*

Zure poema askotan kritika bat egiten diozu egun eta hemengo gizakiari eta gizarteari, alderdi askotatik: diruarekiko menpekotasuna, kontsumismoa, axalkeria, harrokeria...

- *Olerkietan kritika baldin bada, nire ere kritika horren barruan nago, ez naiz kanpoan gelditzen. Baina gaurko gizartean gertatzen denaz, zer esango dizut ba! Adibidez, asto bat ez duzu ikusiko zulo batean bi bider erortzen. Horretarako gizakia izan behar da. Ez bi bider bakarrik; hiru bider; zazpi, eta hamaika bider. Horren aurrean, bain negargarria iruditzen zait... Badira Kaito jakin behar genituzkeen gauzak. Horiek gogoratu beharra ere!*

Amak umeari dion maitasunarekiko mirespen handia igartzen da zure poema askotan.

- *Amaren misterioak barrapatu egin nau. Amak zergatik egiten ditu egiten dituen gauzak? Nondik dator kio indar hori, gauza guztiak irribarre batekin jasateko egonarri hori? Amaren misterio neurrigabe horren zertxobait agertzen saiatu naiz olerkietan. Olerki batean esaten dudana bezala, amak berak ere ez du ulertzen zer gertatzen zaion barruan. Ez dakit. Eramana naiz. Ez dut hautatu gaia, gaiak hautatu nau. Gainera, gai horrek gizatasunaz gain dagoen zerbait adierazten digula iruditzen zait, zerbait metafisikoa.*

Aitak umearekin duen harremana ere aipatzen duzu, baina ez zaizu mirespen bera igartzen.

- *Aitaren rola beste tankerakoa da. Oso inportantea baita ere, noski baino noskiago, baina beste tankera batekoa. Aitez aritzea zailago egiten zait; emakumeez, errazago.*

Elurra ere oso sarri agertzen da. Liburu etako poema askotan aipatzen da elurraren zuritasuna eta isiltasuna, orri zuriaren pareko.

- *Zuria zikintzea soilik da zilegi, idazten duzuna zuria baino zuriagoa baldin bada. Baina olerkiak idazteko bezala beste edozein lanetarako balio duen metafora bat da*

bori: okinarentzat, zurarekin lanean ari denarentzat, etxeko bazkaria prestatzen duenarentzat... Lanbide guztiak dira arte, maitasunarekin eta trebetasunarekin egiten badira. Horrez gain, elurraren zuritasun hori erabili dut, liburu hauetan, atalak banatzeko.

Askotan eskuz idatziak dira elurrari buruzko poema horiek.

- *Eskuz idazteak espresio berezia ematen dio olerkiari. Eta baita grisaren erabilerak ere, txurira hurbiltzeko, edo, alderantziz, beltzago idazteak... Letraren neurriak ere aldatu egiten dira batzuetan...*

Erabaki horiek –letra beltzagoz edo txuriagoz inprimatu, zer neurritako letrak erabili, eskuz edo makinaz idatzita eman...–, zeren arabera hartzen dituzu?

- *Gaiaren arabera, eta olerkiak esaten didanaren arabera. Intimitate gehiago eman nahi badiozu olerkiari, letra txixixegoa jartzen diozu; arreta hara bideratzea nahi baduzu, obiko letra tipoa erabili beharrean beste bat erabiltzen duzu, edo beltzagoa, edo eskuz idatzitakoa... Horrekin jokutzen dut. Olerkiak begientzako beste musikaltasun bat izan dezan. Olerkien lerroen kokapena ere pentsatua dago, barruko errima grafiko modukoa dauka horrela. Hori lehenbiziko liburutik egin dut horrela.*

Irazalea ere, Atta, Jainkoa... maiz agertzen da. Baliteke, ordea, zure poemen irakurleetako askok harenganako fede handirik ez izatea. Zer esango zenieke horiei?

- *Fedegabeari, eta fededunari ere, esango nioke geurez garenak izan behar dugula. Sinestunon artean ere gehiegi txotan gertatzen zaigu garenak ez izatea. Uste baitugu, horrela, jaiotzeagatik bakarrik, beste gogoeta eta inongo ahaleginik egin gabe, garenak garela. Garenak izatea bizitza guztiko borroka latz eta taigabea dugu gizaku-*



Bazkalondoan Patxi Juaristiren ondoan

meok. (...) Bestalde, ez dut uste fedegabea izan daitekeenik inor, ezinezkoa da. Bai, oso erraza da “Jainkorik ez da” eta horrelakoak esatea. Horiek buruz esaten ditugu ordea, baina gure bihotzak ez du horrelakorik esaten. (...) Ez dut uste ateo beteak izan daitekeenik inor, ezerezean amildu gabe.

Zure kasuan, noiz eta nola aldatu zenuen zuk zeure ikuspuntua?

- Ni sinesmenetatik eta erlijiotik kanpo bizi izan nintzen garai batean. Besterik ez duzunean, oso normala da ikusten duzun mundua absolututzat edukitzea. Mugaga-*

bea dela iruditzen zaizu, azkengabea, baztergabea, betikoa... Baina 39 urte inguru nituela ilunpe ikaragarri bat etorri zitzaidan, jabetu nintzenean mugagabetzat neukan mundu hura mundu hura mugatua zela. Bola-da luze bat pasa nuen, oso iluna. Eta halako batean barruan zerbait urtuko balitzait bezala sentitu nuen, gauza txiki-txiki bat, oso xamura, baina nintzen guztia inarrosi zidana. Horren eskutik baztergabearen, betikotasunaren zentzua heldu zitzaidan, eta hori bizitzen hasi nintzen. Horrekin batera, poliki-poliki beste zerbait etorri zitzaidan: lebenago gauzetan ikusten zena bakarrik ikusten nuen bezala, gauza guztietan ikusten ez zena ere ikusten hasi nintzen. Denean: harri koxkor batean, zurbaitzetan, errekan, pertsonengan zer esanik ez... Horrek ziurtasun berezi bat sentiarazten dit. Ez da ziurtasun



Ekintza berean Gotzon Garate sinatzen

arrazionala. Ez dakizu, baina jakin gabe dakizu. Horrelako zerbait. Horrek eraman nau ingurua ere askoz gehiago gozatzerara, bizitzera, mirestera, maitatzera.

Zure poesian ere eragin handia izan zuen aldaketa horrek, jakina.

- *Bide bazterrean hi eta ni kantari-tik Ortzia lorez, lurra izarrez-era aldaketa handia dago bai.*

Zertan dira diferente zure aldaketa horren ondorengo poemak?

- *Nik uste dut oraingo poemak biziagoak direla, eta beste arnasa bat dutela, beste goxotasun bat. Beste egitasun bat. Maitetsuagoak dira. Maitasun gehiago dago, samurtasun gehiago. Sendoagoak. Maitetsuagoak izateak ez baitu esan nabi abulagoak direnik.*

Ikuspegi aldaketaren ondorioz, bigarren bertsioa egin zenion *Ama hil zaigu* poemari. Ez zinen konforme, beraz, lehen esandako guztiarekin.

- *Hasier Etxeberriak esan zuen artikulu batean **Ama hil zaigu** olerki progresista zela, eta nik gerora egin nion bertsioarekin olerki atzerakoia biburtu nuela. Baina ez da atzerakoia ez aurrerakoia. 26 urte nituela ausarkeria handiz bezain ezagutza txikiz idatzi nuen **Ama hil zaigu**, eta bigarren bertsioa, besterik ikusi dudalako geroztik, ikuspegi sakonago eta osoago batetik idatzitakoa da.*

Baina ez diozu uko egiten zure lehenengo liburuetako poesiari, ezta?

- *Bibotzberritu nintzenean, saldu gabe geratzen zitzaizkidan liburu guztiak erre egin nituen, ez zitzaidalako zintzoa iruditzen ordutik gehiago ados ez nengoen zenbait testu jendartean zabaltzea, nahiz eta jakin hori eginik dirua irabazteko aukera galduko nuela, garai hartan Gipuzkoako Foru Aldundiak, beste editoreei bezala, liburu*

*bakoitzetik eburn ale erosi behar baitzizkidan, liburute-giak hornitzeko. Ez naiz damutzen orduan hori egin izana-z, baina gaur beste patxada bat daukat, baiiek or-dukoak direla eta baietan oker esanak zuzentzen eta er-dipurdikoak osatzen abalegindu naizenez geroztikako lanetan. Horrela, **Isturitzetik Tolosan barru** berrargitaratu du duela gutxi Pamielak. Orain **laino guztien azpitik... eta sasi guztien gainetik...** berrargitaratzeko asmotan dabilza lagun batzuk.*

Azken begirada *Karmelen* begiratokitik

Aspaldiko urteetan *Karmelen* esku-hartze nahiko garran-tzitsua izan zuen, haren bibliografian agertzen denez. Beraz, gure aldizkari honen azken orrialdeak –literaturari, olerkiari eta bertsoei eskainiak– haren hainbat poemaz jantzi izan dira, eta urteroko bileran ere, gaixotu zen arte, hementxe, Markina-Xemeinen, izaten genuen. Pozik, irribarretsu; harremanetan atsegina eta samurra zen, guztiak gozo hartzen zituena. Ia beti bere autoan etorri ohi zen, baina lehenengoetako batean Juan Mari Arrizabalagarekin, honen autoan, egin zuen joan-etorria. Badakit, itzulerakoan, gure monumentu txiki interesgarriak bi-sitatu zituztela; hauen artean, zurezko egitura zuten bi baseli-za: Iturretako San Joan eta San Kristobal eta Barinagako Santa Marina (Santamañe); izan ere, antzinako gure santutegi apal hauek benetan miresten zituen berak. Uste dut Barinagako Iburguen garaia ere ikusi zutela, bide batez.

Gogoan dut *Karmelek* Zornotzako Larreatik Markina-Xemeinera egoitza aldatu zuenean, Goiko Portaleko plazan eta Karmengo eliza ondoan batzen ginela, eta gure goiko ga-lerian oharren batzuk egin eta idazleei, ezer oparitzekorik ba-zen, oparitu eta berehala abiatzen ginela Iturretarantz bazkal-tzera. Josanton Artzek, bigarrenez etorri zenean-edo, aurreko zeremonia hari pobre iritzirik, nonbait, ekintza akademiko



Barinagako Santa Marina Baselizan

antzekoa edo zerbait jantziagoa proposatu zuen; eta harrezke-ro, urtero-urtero halaxe egiten da.

Bazkalorduan eta bazkalondoan giro gozo eta alaia izaten genuen eta euskal kanta asko kantatzen ziren; haien artean hutsik egin gabe, *Txoria txori (Hegoak ebaki banizkion)*. Bide batez esan dezadan, askotan entzun dudala irratiz kanta polit hori, eta beti esaten zutela Mikel Laboarena zela, eta bai, musika harena da, baina letra Artzerena. *Maite ditut maite gure bazterrak* eta beste batzuk ere Mikel Laboak musikatu eta kantatuak dira, baina letra Josanton Artzerena. Hau hil denean, hasi dira esaten honen poemak direla. Horrela gertatzen da askotan, hil arte ez zaizkiela batzuei beren merezimenduak aitortzen.

Karmelen begiratokitik agur goxo bat. Esan ohi denez, baina bihotz-bihotzez, egun handira arte.

Luis Baraiazarra Txertudi